

2012KO MAIATZEKO ESKUALDE BILERETAN EMANDAKO INFORMAZIOA

1.- Hezkuntzako murrizketak. Informazioa eta jarduera proposamena.

Azken asteetan, nahiko berri nahasiak zabaldu dira gobernu zentraleko Hezkuntza Ministerioak askotariko eremuei begira iragarritako murrizketak direla eta. Iragarpen horiek Ministro Kontseiluak onartutako apirilaren 20ko Hezkuntza Arloan Gastu Publikoa Arrazionalizatzeko Premiazko Neurrien 14/2012 Errege Dekretu Legearen bidez gauzatu ziren; Wert ministroaren aburuz, "gastua arrazionalizatzeko neurri horiek ez dira gobernuaren hezkuntzaren erreforma, baina bai erreforma hori gauzatu ahal izateko ezinbesteko eta aurretiazko baldintza"; era berean dio "hezkuntzan zerbitzu publikoaren estaldura eta kalitatea ahal den neurrian bermatzeko hartutako neurriak" direla. Alegia, argi ibili beharra dagoela. Hauek dira Dekretu Legean bildutako neurri nagusiak:

- Ratioak aldatzea: Lehen Hezkuntzan, 25 ikasletik 30era igotzea ratioa, eta Bigarren Hezkuntzan, 30 ikasletik 36ra. Neurri horrekin, orain dela 30 urte indarrean zegoen egoerara itzuliko gara, eta, horren ondorioz, litekeena da irakasle plazak ezabatu behar izatea.
- Irakasleen eskola orduak igotzea: Lehen Hezkuntzan, 25 ordura (gaur egun, 23 dira), eta Bigarren Hezkuntzan, 20ra (gaur egun, 17 ordu dituzte). Horrek lan karga handiagoa ekarriko lieke irakasleei, eta 10 irakasletik 1 ezabatuko litzatekeela kalkula daiteke.
- Ordezkapenak: irakasleak ordezkapenak 10 egun pasa ondoren egingo dira.
- Erdi Mailako eta Goi Mailako Graduetarako LOEn aurreikusitako 2.000 orduko Formazio Zikloak ez ezartzea. Horrek esan nahi du LHko ikastaro berriak, eguneratuak eta onartuak, ezingo direla eskaini hemendik bi urtera arte, eta, beraz, dagoeneko zaharkituta gelditu diren zikloek indarrean jarraituko dutela bitarte horretan.
- LOEn aurreikusitako moduan Batxilergoan gutxienez bi modalitate eskaintzeko betebeharra ezabatzea. Horren ondorioz, litekeena da ikasle gutxi dituzten herrietan modalitate bakarrera mugatzea eskaintza osoa, eta, beraz, modalitatea aukeratzeko modurik ez izatea.
- Autonomia erkidegoetako hezkuntza programetarako hezkuntzako gastua murriztea. Eskola 2.0, testu liburuak, goizeko ikasgelak, eskola orduz kanpoko jarduerak, laguntza planak... izango dira neurri horrek nagusiki eragindako arloak.
- Unibertsitateko zerbitzu akademikoaren prezio publikoak zerbitzu horien kostu eraginkorrari hurbiltzea. Hau da, unibertsitateko matrikulen igoera.
- Bekak murriztea eta ikasteko laguntzak eskuratzeko baldintzak zorroztea.

Neurri horien onspenak arbuioa eragin du irakaskuntzako sektore gehienetan; izan ere, sektore horien aburuz, kalte nabarmena ekarriko dio irakaskuntzaren kalitateari, eta, horrez gainera, inoiz ez bezalako eraso izango da eskola publikoarentzat. Bestalde, neurri horiekin batera osasun sistema publikoan ere beste hainbat murrizketa ezarriko dituzte, eta gizarte erakunde askorentzat, neurri horien guztien funtsean ez dago ekonomia onbideratzea, baizik eta zerbitzu publikoaren eta ongizate estatuaren ikuspegi jakin bati nagusitasuna ematea, zerbitzu publikoaren pribatizazioa azken buruko helburutzat eta helburu nagusitzat hartuta.

Erkidego batzuetako gobernuak ere neurri horien kontra daudela adierazi dute, adostasunez hartuak ez izateaz gainera, nabarmen erasotzen dietelako beren eskumenei.

Euskadiri dagokionez, Hezkuntza Sailak arbuiatu egin ditu onartutako neurri horiek, eta iragarri du Konstituzio Auzitegira joko duela, iruditzen baitzaio Eusko Jaurlaritzari dagozkion hezkuntza arloko eskumen eskusiboak urratzen dituztela. Zalantza dago, ordea, errekurtsio hori aurkeztu arren, eta estatu osoan nahitaez bete beharreko neurriak izanik, Eusko Jaurlaritzak eutsi egingo ote dion neurri horiek Euskadin ez ezartzeko erabakiari. Euskal hezkuntza komunitatean, orokorra iritzia: Hezkuntza Sailari eskatu behar zaio Euskadin neurri horiek ez ezartzea.

Ildo horretatik, eskola publikoko EHIGE (Euskal Herriko Gurasoen Konfederazioa), SAREAN (Lehen Hezkuntzako zuzendaritza taldeak) eta BIHE (Bigarren Hezkuntzako zuzendariak) elkarteek dagoeneko jendaurrean aditzera eman dugu neurri horien kontra gaudela eta Euskadin ezar ez ditzaten eskatzen dugula. Gainera, idatzi bateratu bat helarazi genion Hezkuntza Sailari, maiatzaren 8an, neurriak ez ezartzeko eskatzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzak azken ikasturtean indarrean jarritako zenbait murrizketa indargabetzeko eskatuz (ordezkapenak...). Bestalde, eta lehen aldiz zuzendari elkarteekin bat eginda, Bigarren Hezkuntzako irakasleen asteko egonaldia 30 ordukoa izatea eskatu genuen (gaur egun, 25ekoa da), horrela hobeto erantzungo litzaiekeelako ikastetxeen gaur egungo antolaketari eta prestakuntza premiei. Neurri horiek lehenbailehen hitzartu beharko lirатеke sindikatuarekin eta beste hezkuntza eragile batzuekin.

Gizartea neurri horien kontra mobilizatzeko dei ugari egin dira, hala nola:

- Estatu mailako greba deialdia, maiatzaren 22rako, sindikatuen eskutik. CEAPA (IGEen estatuko konfederazioa) elkartearen babesa dauka.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako zerbitzu publikoen sektoreko greba deialdia, maiatzaren 31rako, ELA, LAB, STEE-EILAS eta ESK sindikatuen *eskutik (Maiatzak 17an ELA eta STE-EILAS sindikatuak bertan behera utzi dute greba deialdia eta beste mobilizaziok motak egiteko deitu dute) (Maiatzak 24an LAB et ESK sindikatuak egun osoko grebaren ordezkari orduko greba deitu dute, goizeko 11.00etatik 13.00era.) Nafarroan egun osoko greba deialdia mantentzen da.*
- Lan eta gizarte eskubideen alde hainbat gizarte taldek deitutako manifestazioak, maiatzaren 20an (Bilbon eta Gasteizen) eta maiatzaren 26an (Iruñean eta Donostian).

2.- “Euskal Eskola Publikoa Haratago” dokumentuaren aurkezpena

Badira urte batzuk eskola publikoko EHIGE, SAREAN eta BIHE elkarteek eztabaida eta ekintza foro bateratua antolatzea erabaki genuela, kalitatezko euskal eskola publikoaren defentsan. Eztabaida eta iritzia truke oparoen ondoren, apirilaren amaieran dokumentu bat hitzartu genuen, “Euskal Eskola Publikoa Haratago” izenekoa, eta EHUKo paraninfoan aurkeztu genuen, Bilbon, maiatzaren 3an.

Dokumentu horretan bildutako proposamenen jatorria dokumentua sinatu duten elkarteek antolatutako topaketetako gogoeta prozesu bateratua eta haren ondorioak dira. Hortaz, Euskal Herriko Eskola Publikoko hezkuntza komunitateko ordezkarien parte handi baten partaidetzaren fruitua da dokumentua.

Dokumentuan zehaztutako helburuak eta ekintzak Euskal Herriko Irakaskuntza Publikoak aurrez aurre dituen erronken laburpenaren abiapuntua adierazten dute eta, hortaz, erreferentzia gisa hartu beharko lirатеke euskal hezkuntzari loturiko plan, eztabaida eta proiektu guztien prozesuetan.

Dokumentuan aurkeztutako ekarpenen xedea da hezkuntza zentro publikoetan gauzatu beharreko hezkuntza ekintzen zertzelada nagusiak zehaztea, ikasleei ahalik eta zerbitzu onena emateari begira.

Ez da dokumentu itxita eta, beraz, eskola publikoko hezkuntza komunitateko edozein kidek egin ditzake ekarpenak eta iradokizunak. Horregatik eskatu nahi diegu IGEei dokumentua irakur dezatela; BAIKARAREN webgunean dago eskuragarri.

3.- HEZKUNTZA SAILAREN 2012rako DIRU LAGUNTZAK

Hezkuntza Sailaren hasierako aurreikuspenen arabera, IGEentzako diru laguntzen deialdia iazko data inguru berean eman behar zen argitara (maiatzaren 11tik ekainaren 10era bitartean); baina, aurten, eskaria egiteko epeak atzeratu egingo dira. Hezkuntza Sailak jakinarazi duen gauza bakarra da ekainean zehar argitaratuko dela eskariak egiteko agindua EHAAn. Hori dela eta, ez daukagu beste informaziorik ematerik; nolana ere, pentsatzen dugu izapideetan ez dela aldaketa nabarmenik izango, iazkoarekin alderatuta. Ildo horretatik, iaz IGEei igorritako informazioa gogoraraziko dizuegu:

- Laguntzak IGEek **2012ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean** egingo dituzten ekintzetarako dira.
- Bi inprimaki bakarrik bete behar dira:
- **I. eranskina:** eskabide orria, honako datu hauekin: eskaria egiten duen pertsonaren datuak (IGEaren lehendakaria), IGEaren erregistroaren datuak, ikastetxeko ikasleak eta IGEa bazkide den Federazioaren izena (zuei dagokizuenek, BAIKARA). Eranskin hori lehendakariak sinatu behar du, eta IGEaren zigilua ere jarri behar da (*IGEak zigilurik ez badu, ikastetxearena*).
- **II. eranskina:** IGEak **2012ko abenduaren 1etik abenduaren 31ra** egingo dituen ekintzen egitaraua zehaztu behar da eranskin honetan, hiru sailetan bereizita: azpiegituretako gastuak eta ekintzak; gurasoentzako ekintzak; ikasleentzako ekintzak. ERANSKIN honetan bi sinadura jarri behar dira: IGEaren lehendakariaren sinadura eta zigilua, eta ikastetxeko Eskola Kontseiluko-OOGko idazkariarena.

Onartutako diru laguntzen zerrenda EHAAn argitaratutakoan (irailetik aurrera izango dela iruditzen zaigu), IGEek 15 eguneko epea izango dute jasotako laguntza justifikatzeko, argitalpenaren egunetik aurrera. Justifikaziorako, **III. ERANSKINA** aurkeztu beharra dago, behar bezala beteta eta **jatorrizko fakturak eta ordainagiriak** atxikita. Argi zehaztu behar dira hiru ekintza motetako bakoitzari esleitutako zenbatekoak, baita gastuen zenbateko osoa ere.

Informazio gehiago eta bete beharreko eranskin ereduak jaso orduko, IGEei igorriko dizkizuegu; betiere, gogoan izan EHAAn agindua argitaratzen denez geroztik BAIKARAren webgunean ere deskargatzeko moduan izango dituzuela (www.baikara.org).

4.- EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIK

Ekainean egingo dira euskal eskola publikoaren bi jaiak:

- Ekainaren 3an, Larraulen, Eskola Txikien Jaia. Aurten, gainera, izaera berezia dauka, jaiaren 25. urteurrena beteko baita.
- Ekainaren 10ean, Zarautzen, Euskal Eskola Publikoaren XXI. Jaia. Dagoeneko finkatuta dago jardueren egitaraua, eta, seguru asko, datorren astean igorriko dira eskuko egitarauak ikastetxeetara.

5.- INTERESEKO BESTE GAI BATZUK.

5.1 Testu liburuak

Hezkuntza Saila 2012. urtean egiten ari den aurrekontu murrizketen eraginez, testu liburuen mailegurako programak geldiune bat izango du. Honako neurri hauek hartu dira gai horri buruz:

- 2012-2013 ikasturtean ez da mailegu programa DBHko 3. mailara zabalduko.
- Lehen Hezkuntzako bigarren zikloari zegokion liburuak ematea, 4 urtez liburu horiek erabili ostean, baina ez da halakorik egingo, eta 5. urtez liburu horiek erabiliko dituzte.

Neurri horiek direla eta, EHIGEk desadostasuna adierazi du, eta honako eskari hauek egin dizkio Hezkuntza Sailari:

- Jarrai dezala programa DBHko 3. mailara zabaltzeko urratsak egiten, aurreikusita zegoen moduan.
- Hala eskatzen duten ikasle guztiak programan onar ditzatela, eta ez dadila uko egiterik onartu.
- Eskola Kontseilu bakoitzak zehaztu dezala Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko familien kuotaren zertarakoa.
- Ikasleentzako bekak bermatzea, irizpideak berraztertuta.
- Programa honetan nahitaezko irakasgaien liburuak soilik sartzea.
- Ikasgelan material digitalen erabilera sustatzea, baldintza teknologiko guztiak bermatuta eta irakasleak behar bezala trebatuta. Ez dauka zentzurik liburuen mende aritzeak, eskusiboki, jakinik ikastetxeak teknologia berrietara moldatzeko inbertsio handiak egiten ari direla.
- Curriculumeko materialak aukeratzean nahiz etxeko lanak agintzean kontuan har dadila ikasleek joan-etorrietan garraiatu beharreko pisua.

Era berean, azpimarratu nahi dugu curriculumeko materialek guztiz doakoak izan beharko luketela Euskal Eskola Publikoko familientzat.

5.2 Eskola jangelak

Legazpiko Domingo Agirre ikastetxeko IGEak “Domingo Agirre eskola jangela- Zentzugabekeria baten kronika” izeneko txostena helarazi dio Federazioari, salatzen duen jangela zeharkako kudeaketatik (IGEaren kudeaketatik) zuzeneko kudeaketara (Hezkuntza Sailaren kudeaketa, Auzolagun azpikontratatuta) aldatu zenetik haren kalitatean izandako erabateko gainbehera. Txostenean, hainbat kopuru, balioespen... bildu dituzte, agerian uzteko gaur egungo kudeaketak aurrekoak baino kostu handiagoa duela eta, aldiz, janaren kalitatea okerragoa dela. Horregatik, Gipuzkoako IGE guztiei eman nahi diete txostenaren berri, gurasoek informazioa izateko eta autogestioan oinarrituriko eta kalitate hobeko jangelen aldarrikapena bere egingo duen mugimendu bat sustatzeko.

5.3 Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Zero Zabor Eskolak” proiektua

Aurreko maiatzaren 10ean bilera bat izan genuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen saileko arduradunekin. Bilera hartan, “Zero Zabor Eskolak” deritzen proiektua aurkeztu ziguten, zeinaren helburu nagusiak baitira:

- Ikastetxeetan ahalik eta hondakin gutxien sortzea, eta, horretarako, birziklatze politikak bideratzea.
- Ikasleak birziklatzearen onurez ohartaraztea, beren familietan ere kontzientzia hori zabaltzen laguntzeko eragile modura jardun dezaten.

Guri dagokionez, jakinarazi genien era honetako proiektuen alde gaudela, baina, gure ustez, era horretako ekimenak bideratzeko bide egokiena “Agenda 21” programa dela, hondakinen auzia lantzen baitu, besteak beste. Era berean, adierazi genien arriskua dagoela, Gipuzkoan batez ere, birziklatzea sustatzeko ahalegina hiri hondakinen bilteta sistemari buruz gaur egun dagoen eztabaidarekin nahastekoa. Aldundiak erantzun zigun ez duela zerikusirik gauza batek bestearekin, proiektu honen helburua birziklatzearen ehunekoa handitzea delako, edozein dela ere hondakinak biltzeko erabiltzen den sistema.

Proiektuak zenbait fase ditu: esperientzia pilotu modura ikastetxe batzuetan “Zero Zabor Eskolak” sortzea, eta, gerora, proiektua gainerako hezkuntza zentroetara zabaltzea.

Bilera hartan, konpromisoa hartu genuen proiektu honi buruz Aldundiak argitaratzen dituen informazioak IGEei helarazteko.